

# **10-11-KO ARAUDIA**

**IKASLEAK INFORMATUTA EGON BEHAR DU.**

**IKASLEEN ESKUBIDEEI ETA BETEBEHARREI BURUZKO DEKRETUA (EHAA, 2008-12-16) DUGU ARDATZA ETA KURTZO HASIERAKO EBAZPENA ERE BAI. ZEHAZTUKO DITUGUN EGOERAK ETA PROZEDURAK HURRENGOAK DIRA:**

## **1. ORDUTEGIA ETA ASISTENTZIA:**

Ikasleen atea goizez 8.25.etan irekiko da eta arratsaldez 14.25.etan. Bost minutu beranduago (8.30etan eta 14.30etan) itxiko da eta ikasleak Ate nagusitik sartuko dira.

### **2.1. Irakasleen asistentzia:**

- Irakasleok sasoiz helduko gara gelara, ikasleek eredutzat hartzen gaituztelako.
- Irakasleak falta direnean Idazkaritzan dagoen justifikante-orria beteko dute eta honi itsatsita utziko diote faltaren justifikantea.
- Aurretik baldin badakite huts egingo dutela:
  - Ikasketa buruari esango diote, honek zaintza orria betetzeko edo bestelako intzidentziak kontrolatu ahal izateko.
  - Lana utziko dute irakasle gelan dagoen bandejan.
- Bi irakasle gelan daudenean, irakasle bat falta izanez gero, besteak hartuko ditu ikasle guztiak, bere ordutegia betetzen, beharrezkoak diren saio guztietan.
- Guraso orduan irakasle gelan egongo gara irakasleok. Beste leku batera bagoaz, adibidez bilera bat dugulako, zaintzan dagoen irakasleari edo/eta idazkariari komentatuko diogu.

### **2.2. Ikasleen asistentzia:**

#### **2.2.1. Oinarrizko prozedurak:**

- Ikasleak berandu edota asistentzia falta duenean, ikastetxeko justifikantea ala justifikante ofiziala ekarri behar du.
- Ikasleak ikastetxetik ateratzeko ikastetxeko justifikantea irakasleari erakutsi behar dio, eta ikaslea ikastetxetik ateratzean, atea irekitzen dionari (atezaina, irakaslea...) justifikantea emango dio, honek tutoreari emateko.
- Justifikanteak idatziz izan behar dira, ez ahoz. Salbuespen bakarra izango da 2. zikloko ikasleen gaixotasun arinen kasuan (ikusitako protokolo medikua).
- Justifikatutako eta ez justifikatutako hutsegiteen kopuruaren berri ematea ikasturtean zehar tutoreen esku gelditzen da. Gutxienez, hiruhilabetekoan behin emango da.
- Irakasle guztiok ikasleen huts-egiteen fitxategia bete behar dugu:
  - Egunero eta orduro egon diren intzidentziak jarri behar ditugu.
  - Fitxategi honen jarraipena Tutoreak eramango du.

- **Bai berandu heltzea, bai ez etortzea:**
  - Ikasleek **48** orduko (egun lektiboetan) justifikatzeko epea dute. Justifikantea, irakasleei erakutsi eta gero, tutoreari emango dio ikasleak.
  - Bata zein bestea epez kanpo justifikatzen badira, **Jokabide Desegokia** izango du ikasleak.
  
- **Berandu etortzea:**
  - Justifikatuta egonez gero, arloko irakasleak BJ (berandu justifika-tuta) jarriko du huts-egiteen koadernoan.
  - Justifikatuta ez badago, hiru metatzean **Jokabide Desegokia** izango du ikasleak.
  
- **Ez etortzea:**
  - Ikaslea etorri ez bada, arloko irakasleak F idatziko du.
  - Tutoreak hutsegite hori justifikatuta dagoela jakitean, FJ idatziko du.
  - Justifikatu gabeko bertaratze-hutsegiteak, beste astungarri batzuk ez badaude tartean, **Jokabide Desegokia** suposatzen du (Dekre-tuan, 30.artikulua). Tutoreak jokabide desegokia bideratuko du.
  - Justifikatu gabeko bertaratze-hutsegitea egitearen konstantzia nabaria bada, detektatu bezain laster gurasoei horren berri emango zaie telefonoz, eta gero idatziz ere bai. Tutoreari eta zuzendaritzari beti pasatu behar zaie informazio hau.

### 2.2.2. Prozedura bereziak:

- Absentismo
  - Ikasleren bat Absentismo eskolarrean sartzen bada Tutoreak Zuzendaritzari esango dio, Zuzendaritzak Udaletxekoei informazioa pasatzeko.
  - Familiei ikasleen hutsegiteen berri emateko honela jarraituko dugu:
    - Absentismo eskolarra ekiditeko, eskola-orduen %15 hilean justifi-katu gabeko direnean (ziurtagiri ofiziala aurkezten denean justifikatuak kontsideratuko dira), kartaz komunikatuko zaio famili-ari Delegazioak eskaintzen duen ereduari jarraituz.
    - Eskola-orduen %20 baino altuagoa bada hutsegiteen kopurua, Delegazioak agintzen duen protokoloa jarraituko da: Ikuskaritzari eta Udaleko Zerbitzu Sozialei jakinarazpena.
  
- Azterketa egunean gaixorik dagoen ikasleen kasuak:

Gurasoen ziurtagiriarekin nahikoa da justifikatutzat emateko. Salbuespena: Ikasle batzuekin ezin da fidatu sinaduraz edo/eta falta asko daude azterketa egunetan soilik.

**Neurria:** Irakasle bakoitzak ikusiko du nola planteatu gaia, kasuan kasu, honen barruan ziurtagiri medikoa barne, beti ere gurasoekin hitz egin ondoren.

- Irteeretan:

- Ikasleak deialdiaren **notifikazioa-baimena** sinaturik ekarri behar du, irteera horretan parte hartzeko. Bestela ezin izango dute jarduera honetan parte hartu. **Salbuespena: Bilbon bada, ez da baimenik behar baina askotan notifikazioa edo ohar informatiboa bai eramaten dutela.**
- Familiak erabakitzen bada ez joatea, etxean gelditu behar du ikasleak.
- Arazo ekonomikoen aurrean, banan banakako azterketa egingo da.

### **3. ZAINTZAK:**

#### **3.1. Saiotako zaintzak**

Irakasleak zaintza-koadernoan agertzen den zaintza egin behar du. Beharrik ez egotekotan, ikastetxe osotik buelta bat emango du egoera kontrolatzeko. Gero, Irakasle-gelan egongo da, zaintza bukatu arte.

Gertatutako intzidentzia guztiak (portaerak, faltak, ikasle gaixorik...) zaintza koadernoaren apuntatu behar dira. batez ere, gaixo bereziak dituzten ikasleen kasuan oso garrantzitsua da, ahalik eta lasterren, tutoreei eta zuzendaritzari informazioa pasatzea, eta hauek, idatziz, gorabehera horien erregistroa eramatea eta familiak idatziz informatzea.

Zaintza egin behar duen irakasleak edo, batzuetan, irteera edo egonaldien kasuetan, zigortuekin daudenek intzidentzia guztiak apuntatu behar dituzte, Baita ikasleen hutsegiteak ere, ordezkaturako irakasleen asistentzia orriaren dagokion lekuan. Irteera edo egonaldi batetara joango diren irakasleek ere apuntatu behar dituzte ikasleen hutsegiteak dagozkien orduetan edo egunetan.

**Medizinak:** Ezin dugu medizinarik eman, salbuespenak aparte, adib diabeti-koak.

**Ordenagailuak:** Azken orduan zaintza duenak Irakasle-gelako ordena-gailuak / inprimagailuak amatatuko ditu.

#### **3.2. JOLASTORDUKO ZAINTZAK:**

Zaintzan dauden irakasleek gelak hutsik eta itxita daudela ziurtatu behar dute. Lan hau errazteko, aurreko saioko irakasleak ikasle guztiak aterako ditu eta atea itxiko du.

Zaintzako irakasleek komunak ere itxiko dituzte. Ikasleek erabili ahal dituzten komunak Areto Nagusiko pasabideetakoak izango dira, horretarako, beharrez-koa denean, Zaintzan dagoen irakasleak komunak irekiko ditu.

**Salbuespena:** Ordu-tegi trinkoan azken 10 minututako zatian. Minutu hauetan, beste komunak irekita egongo dira eta zaintzan dagoen irakasleak ireki eta itxiko ditu.

- **Ikasleak pasabide honetan eta patioan bakarrik egon daitezke.**
- **Patioko aterpean ezin da futboleak jolastu.**
- **Baloien erabilera egokia izan behar da.** (Geroago agertzen da)

**\*\*Terraça:** Eguraldi ona egitekotan, eta ikasleek eskatzen badute, zabal daiteke, baina horretarako, irakasleren batek hor geratu behar du. **Urtero, kurtso hasieran, ikastetxearen betebeharren arabera, zabaltzea ala ez eta zein baldintzatan erabakiko da.**

### Errekreoetan pasabideko zikinkeria:

Errekreoetan, Areto Nagusiko pasabidea ikasleek garbitu behar dute. Talde guztietan lau ikasletako taldetxoak antolatuko dira, taldetxo bakoitzak aste baten zehar garbiketa egin dezan. Taldetxo hauek Zaintza-koadernoan agertuko dira eta Zaintzako irakasleek jarraipena egingo dute. Ekintza hau Agenda 21eko aktibitatea da.

Ordena:

- 1.zikloan: 2A, 2B, 2C, 2D, 1A, 1B, 1C, 1D
- 2.zikloan: 4A, 4B, 4DK, 3A, 3B, 3DK

Ikasleren batek bere txanda ez betetzekotan, hurrengo astean garbitzen jarraituko du. Bigarren aldiz gertatuz gero, **Jokabide Desegokia** izango du.

### 4. GELEN EGOERA:

- Irakasle guztion ardura da gelen egoera. Zikin aurkitzekotan, ikasleei garbitzeko agindu behar diegu.
- Zerbait (pertsiana, kristalak...) apurturik egotekoetan atezaintzan abisu utzi behar diegu.
- Klasea amaitzean (edo beste gela batera: Laborategia, Liburutegia...joatean), argiak amataturik, eta leiho eta atea itxita daudela ziurtatu behar dugu.
- Ikasleak ezin dira sartu berena ez den klase batean. **Neurria:** hiru aldiz gertatuz gero **Jokabide Desegokia** izango du.

### 5. IKASTETXEAREN EGOERA:

Sentsibilizatzeko kanpaina: Garbiketa, ordena, besteen materialekiko errespetua... eta antzeko baloreen inguruko gogoeta ikasleekin ikasturtearen hasieran egingo dugu. Horrela, kurtsoaren zehar jarritako arauak betearaztea errazagoa izango da.

Espazio komunak (Jantokia, Gimnasioa...): Espazio hauek kontrolatzeko zailagoak direnez, ardura zuzena duten irakasleak (Jantokiko arduraduna, GH-ko irakasleak...) arduratuko dira.

### 6. MATERIALA:

Ikasgai bakoitzaren materiala ezinbesteko tresna da era egokian lan egiteko. Beraz, beharrezko materiala ekarri behar da. Bestalde, Gorputz Heziketan dutxarako eta aldatzeko jantziak ere ekarri behar dira.

### Tresna Elektronikoa:

GUZTIZ DEBEKATURIK daude. Ikasleren batek MP3, Diskman, telefonoa... gure aurrean edukiz gero, **Jokabide desegokia** jarriko zaio. Ikasleak abisu hau etxera eramango du, gurasoek sinatzeko.

Horrez gain, arloko irakasleak edo arduradunak aparatu elektronikoa hartu eta saioaren amaieran bueltatuko dio ikasleari.

**Erabili badu, eta erabilera horren arabera, neurri gogorragoak hartuko genituzke, Dekretuak markatzen duenari jarraituz.**

### Pipak eta Txiklea:

Debekaturik daude. **Neurria:** Ikasleak pipak jaten ikusten duen edozein irakasleak pipak kendu eta ez eman. Txiklearen kasuan, zakarrontzira botako du ikasleak.

### Apurketak:

Apropos edo gaizki erabiltzeagatik apurtutako gauzak (sarrailak, atepak, komunak, kristalak...) ikasleak ordaindu egin beharko ditu edota berria ekarri.

**Erruduna ezezaguna izatekotan, taldekide guztien artean ordainduko da.**

**Horrez gain, kasua aztertuko genuke beharrezkoak diren bestelako neurri diziplinarioak eta zuzentzaileak jartzeko.**

### Lapurketak:

Norbait beste baten motxila arakatzen ikustea nahiko izan daiteke susmapen egoteko zerbait desagertuz gero. **Zerbait desagertzeko kasu guztietan berreskuratzeko baliabideak jarriko dira.**

**Horrez gain, kasua aztertuko genuke beharrezkoak diren bestelako neurri diziplinarioak eta zuzentzaileak jartzeko.**

### Baloiak atsedendietan:

- Ikasturteko hasieran, balioen arduradunak izendatuko dira. **Baloiak arduradunek hartu eta utzi behar dituzte.** Errekreio hasieran, Atezain-tzatik hartu eta errekreoa bukatzean hara bueltatu behar dute. **Balioa eskuetan edukiko dute,** ezin berarekin patiotik kanpoan (pasabideetan) jolastu.
- Errekreoetan erabilera zaindu behar da: Saskibaloiak ez dira futboleant jolasteko erabiliko. Hau egitekotan, APURTZEN DIRA, eta apurtutako materiala ez da berriztatuko.
- Baloiaren bat Irakasle-gelara itzultzen ez bada, galdutzat emango da. Baloiak desagertzekotan, aste batean baloirik gabe geratuko dira.
- Patioko aterpean ezin da futboleant jolastu.

## 7. ERRETZEA eta bestelakoak:

Lege berria dago. 2006ko Urtarrilaren 1.tik ERRETZEA DEBEKATURIK DAGO, Irakasleren batek erretzeko KANPORA JOAN BEHAR DU.

Ikasleek erretzea debekatuta dago.

**Neurriak:** Tabakoa, alkohola edo bestelako droga bat edukitzea edo kontsumitzea **Ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabidea** izango da.

**Salmenta edo pasatzea egon dela ziurtatzen bada, neurri gogorragoak hartuko genituzke, Dekretuak markatzen duenari jarraituz.**

Tabakoa eta txiskeroa ekartzea debekaturik dago. Ekartzekotan, kentzen dira eta ez dira berriro emango.

Porroak erreta klasera etortzen dela sumatuz gero, une horretan bertan gurasoei deituko diegu baldintza egokietan ez daudela lanean aritzeko, eta bere bila etortzeko esateko.

## **8. EUSKARAREN ERABILERA:**

1. Ikasleekiko harremanak EUSKARAZ izango da.
2. Ikasleren batek gaztelaniaz mintzatzen ez diogu erantzungo ala euskaraz errepikatzeko aginduko diogu.
3. Jolastorduetan, patioan, Jantokian, irteera/sarreretan... irakasleen jarrera aktiboa eskatzen da ikasleek euskaraz hitz egin dezaten.

## **9. ARETO NAGUSIAREN ERABILERA:**

Ikastetxeen urteko programazioetan sartuta ez dauden jardueretarako, 76/2008 Dekretuak, maiatzaren 6koak, arautzen duenaren arabera erabiliko dira Areto nagusia eta bestelako instalazioak.

## **10. EKINTZA OSAGARRIAK / EKITALDIAK ORDUTEGI ESKOLARREAN**

Ikastetxean, ekintza osagarriak edo ekitaldi bereziak antolatzen direnean, aurretik, Ikastetxeko Urteko Planean aurreikusita egon beharko dira. Horretarako, antolatzaileek Irailean aurkeztuko dute Zuzendaritzan plangintza eta bertan aurreikusten diren emanaldiak eta antolamendurako berezitasunak (arduradunak, beharrianak, denboralizazioa...) agertuko dira. Zuzendaritzak Ikastetxeko Urteko Planean (I.U.P.) sartu egingo du. Ondoren, hala badagokio, Kontseilu Eskolarrak onartuko du.

Bat-bateko ekimena, ikasturtean zehar proposatzen bada, Batzorde iraunkorreko kideek onartuko dute horretarako konbokatuko den saioan.

*Ekitaldiko plangintza 15 egun lehenago aurkeztu beharko da.*

## **11. LIBURUTEGIKO ARAUDIA:**

1. Isiltasuna derrigorrez egon behar da.
2. Irakasle baten presentzia derrigorrezkoa da, liburuak eramateko / itzultzeko, apalak irekitzeko, ordenagailuak erabiltzeko...

3. Erreserbak Irakasle-gelan dagoen orrian idazten dira eta giltza Irakasle-gelan ere dago.

## **12. GREBA ANTOLAKETA**

### (TUTORE GUZTIEK GAI HAU KLASEAN TRATATUKO DUTE)

1. Greba antolatzeko, 2008ko Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren 13 eta 14.artikuluak kontuan hartuko dira. Baita orain arteko ohitura eta 1999ko txosten juridikoa ere.
2. Greba-eguna antolatzean ondorengo baldintza hauek beteko dira:
  - 2.1. Beti ere, ikasleen parte hartze espezifikoa artikulatzen duen organoak egin beharko du klasera ez joateko proposamena, bere iniziatibaz edo ikastetxean matrikulatutako ikasleen %5ek gutxienez.
  - 2.2. Klasera ez joateko proposamena, behar bezala arrazonatua, idatziz egingo da, greba-eguna baino **bi egun** lehenago gutxienez, norik konbokatzen duen, eguna, ordua eta programatutako ekintzak adieraziz. Salbuespenez, egun bat lehenago egin ahal izango da eta proposatzaileak behar bezala justifikatu beharko ditu presaren arrazoiak. Ekintza manifestazio batetara joatea bada, izango duten denbora egokia izan behar da, ikastetxeko funtzionamenduak jarrai-tzeko.
  - 2.3. Greba antolatzeko egin behar diren bileretara ORDEZKARIAK eta greba antolatzen duen taldearen ordezkariak bakarrik joango dira, eta BETI errekreoetan antolatuko dira, hauek klaserik ez galtzeko.
  - 2.4. Informazio hau ZIKLOKO BAKOITZEKO ORDEZKARI BATEK akta moduan atsedenaldira, eguerdi edo arratsaldean (ordutegitik kanpo) Zuzendaritzari emango dio, ahal bada, 24 ordu aurretik eta premia kasuetan, 12ra murriztu ahal izango da.
  - 2.5. Zuzendaritzak baietza ematen badu, Grebari buruzko informazioa, ordezkariak GELAN bere gelakideei emango die, irakasleari baimena eskatu ondoren. Horretarako 10 minutu gehienez izango ditu (bozketa barne).
  - 2.6. Bozketaren bat egitekotan (sekretua izan behar da), bozketa eta kontaketa GELAN bertan izango da. Bozketaren emaitzak Ordez-kariak zuzendaritzari klasea bukatzean emango dizkio, data, hasteko ordua, bukatzeko ordua emaitzak eta ordezkari eta irakaslearen sinadurekin.
  - 2.7. Ikastetxeko Zuzendaritzak, jardunbide guztiaren berri emango dio Kontseilu Eskolarrari, organo hori izango da jardunbide hori beteko denaren bermatzaile.
  - 2.8. Emaitzak, bi pisuetako pasabideetan argitaratuko dira Zuzendaritzak ikusi ondoren. Emaitza hauek ikasleen gelan dagoen materialarekin (kartulinak, errotuladoreak...) Ordezkariek klaserik galdu gabe argita-ratuko dituzte.
3. Klasera ez joateak, diziplina ondorioetako ez dira kontatuko baina guraso edo legezko ordezkariak jakinaren gainean egongo dira. Horretarako greba egingo

dutenek notifikazio bat ekarri behar dute gurasoek sinatuta, eta notifikazio hau egoki deritzon epe barruan emango da.

4. Greba egin nahi ez duenak klasea izango du.
5. Irakasleak greba eguneko azalpenak ez ditu zertan errepikatu behar. Greba egunetan azterketaren batera etorri ez izanez gero, justifikante ofiziala ekartzea derrigorrezkoa izango da.
6. Froga idatziak (azterketak, kontrolak...), beste froga batzuk eta lanak emateko epeak edozein kasutan errespetatuko dira.